



## Udazkeneko txapelketa 2024-2025

### Boleibola

**Lekua: Fadurako Kiroldegian – Los Chopos Etorbidea, 60, Getxo**

#### TXAPELKETAKO ARAUAK

1. Instalazioetara **garaiz** iristea eskatzen da, erreserbatzeko orduan beroketa azkar bat egin ahal izateko. Jokalari guztiek elkarrekin sartu behar dute beti instalaziora. **Partidak hasteko ordua ezingo da 5 minutu baino gehiago atzeratu.** Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida. Partida bat hasteko, talde bakoitzak **7 jokalaria izan beharko ditu gutxienez, eta gehienez 12.**
2. **Derrigorrezkoa** da instalaziora iristean **arbitro taldeari NANA eta egiaztagiria edo unibertsitateko txartela aurkeztea, izena emateko triptikoarekin batera.** Aurkezten ez dituztenek EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.
3. **Jantzia:** Arbitroen lana errazteko, taldeek eraman behar izango dituzte 2 kamiseta, bat argia eta beste bat iluna.
4. **Derrigorrezkoa:** talde guztiek boleiboleko arauzko baloi bat eraman behar dute jokalekura. berotzeko, eta beharrezkoa balitz, partida jokatzeko.
5. **PARTIDEN iraupena:** Hiru set jokatu dira (25 tanto set bakoitzean), eta irabazlea hiru set horietatik bi irabazten dituen lehen taldea izango da. Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera.  
  
**Set batean berdinketa gertatuz gero:** 24na berdinduz gero, irabazleak bi puntuz irabazi beharko du. Hau da, jokatzeko jarraitu beharko da harik eta taldeetako batek bi puntuko abantaila lortu arte.  
**Partidako berdinketak:** Bakako berdinketa gertatuz gero (hiru set jokatu behar diren partidetan), 15 puntuko set bat jokatu behar da berdinketa hausteko.
6. **ARBITROAK:** **arbitroa ez agertzea ez da aitzakia izango partida bertan behera uzteko edo atzeratzeko.** Horren ordez, ordezkariak ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza balioduna izango da sailkapenerako. Gainera, partida amaitu eta 24 orduko epean partidara bertaratutakoen izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean, eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bi-kirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Orri hori berandu bidaltzen bada, arrazoirik gabe, partida galdutzat emango da bi taldeentzat.
7. **Kredituak aitortzeko eskaera:** banan-banan egingo da. Hauxe da esteka: <https://www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/prestakuntza/kredituak-kirolaren-arabera-aitortzea> Unibertsitateko Txapelketak guztiak bukatuta,
8. **OSO GARRANTZITSUA:** partida amaitzean, talde bakoitzeko kapitainak edo ordezkariak partida bakoitzaren akta berrikusi eta sinatu behar du derrigor, emaitza eta jokalarien zerrenda egiaztatu ahal izateko. Partida amaitu eta 10 minutura dokumentu horri egiten zaizkion **alegazioak** ez dira aintzat hartuko.

9. Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du norbaiti **zehapena ezarri eta txapelketatik kanporatzeko, kirol instalazioetan** kirolari ez dagozkion jarrera eta **gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero.**

ANTOLARUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAR ALDATZERO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ.

PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.